

## “Potentziako elektronika, Euskadiko industria erreferentea” jardunaldia Mondragon Unibertsitatean

2011/06/14

Mondragon Unibertsitateko Goi eskola Politeknikoak antolatuta, euskal ekonomiaren puntako enpresen partaidetzarekin, horien artean Ikerlan Ingeteam, Ormazabal, Orona eta Trainelec, jardunaldiak bertaratutako kide ugarietara potentziako elektronikaren eta honako hauexen garapenaren artean nolako lotunea dagoen azaltzeko balio izan zuen: garraio bertikala, ibilgailu elektrikoa, trenetako trakzio elektrikoa, ontzigintza eta industria eolikoa edo sare elektrikoa. Enpresa horiek euren jardueraren ikuspegitik eman zituzten zabalkunderako azalpen guztiak.

Hartara, ongi-etorriaren ondoren, Ion Etxeberriak, Ikerlan Zentroko Automatika eta Potentziako Elektronikako Saileko arduradunak bere hitzaldia eman zuen. Aitor Amezuak, Ormazabal enpresako Potentziako Elektronikako Proiektuetako arduradunak, potentziako elektronikak sare elektrikoan daukan inplikazioaz hitz egin zuen. Bestetik, Iñaki Garatek, Ingeteam Technologyko Oinarrizko Teknologien Dibisioko Zaintza Teknologikoko arduradunak, potentziako elektronikak sorkuntza eolikoan, industrialean eta ontzigintzan daukan aplikazioari buruz hitz egin zuen. Txomin Nievak, Traineleceko I+G-ko zuzendariak, ordea, trenetako trakzio elektrikoa izan zuen hizpide, eta Ritxar Aizpuruak, Oronako Eragintzen Saileko arduradunak, potentziako elektronikak garraio bertikalean nolako eragina daukan azaldu zuen. Jose Maria Canalesek, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko ikertzaileak, potentziako elektronikari esker ibilgailu elektrikoaren garapenean emandako aurrerapausoen berri eman zuen.

Enpresa horiek guztiak bete-betean lan egiten dute Mondragon Unibertsitatearekin, ikerkuntza mailan nahiz maila akademikoan, baita Energiaren eta Potentziako Elektronikaren Masterrean ere.

